



787/2024 Ebazpena, urriaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko maila aitortzeko eskaerak ebazten diren eta behin-behineko esleipena argitaratzeko agintzen den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ohiko deialdiari dagokionez.

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen bidez arautzen da, hurrenez hurren, Osakidetzan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta langile ez-sanitarioen eta lanbide-heziketako profesional sanitarioen lanbide-garapena. Dekretu horien 11. artikulua ezartzen duenez, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariari dagokio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko mailaren behin-behineko esleipena argitara dadila agintzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez arautzen dira Osakidetzaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako 2022ko ekitaldiko lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak.

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera (dekretu horien bidez arautzen da, hurrenez hurren, Osakidetzan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta lanbide-heziketako profesional sanitario eta ez-sanitarioen lanbide-garapena), lanbide-garapeneko batzorde korporatiboek jada aztertu dituztenean prozesuan onartutako eskatzaileen emaitzak – goi-maila lortzeko eskatutako lan egindako urteak dituztelako eta bloke guztietako gutxieneko puntuazioa lortu dutelako aztertu direnak– eta dagokion txostena egin dutenean, Giza Baliabideen Zuzendaritzari dagokio emaitzak Osakidetzaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren 10. artikuluen bidez arautzen da mailak esleitzeko prozedura, eta mailak esleitzeko behin-behineko ebazpenari buruzko a) apartatuan ezartzen da Ebaluazio Batzordeak egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira bidaliko duela. Batzorde Korporatiboak txostena eman ondoren, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda Osakidetzaren webgunean argitaratzeko aginduko du Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak ebazpen bidez.



Azaldutako guztiagatik eta emandako ahalmenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko mailaren behin-behineko esleipena Osakidetzaren webgunean argitara dadila agintzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ohiko deialdiari dagokionez.

Ebazpen honekin batera doan eranskinean, lanbide-talde hauetan aitortutako mailen behin-behineko esleipena zerrendatzen da:

- A1 taldea – Lizentziadun Sanitarioa
- B1 taldea – Diplomadun Sanitarioa
- A2 taldea – Goi Mailako Tituluduna
- B2 taldea – Erdi Mailako Tituluduna
- C1 taldea – Teknikari Espezialista Sanitarioa
- C2 taldea – Administrazioko Teknikari Espezialista
- C3 taldea – Teknikari Espezialista Profesionala
- D1 taldea – Teknikari Laguntzaile Sanitarioa
- D2 taldea – Administrazioko Teknikari Laguntzailea
- D3 taldea – Teknikari Laguntzaile Profesionala
- E1 taldea – Mendekoa/Langilea

Interesdunek puntuazio indibidualak kontsultatu ahalko dituzte Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan, helbide honetan:
<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren 10.a) artikulua hiru paragrafoa kontuan hartuta, lanbide-garapeneko mailak esleitzeko Giza Baliabideen zuzendariaren behin-behineko ebazpen horren aurka, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, 10 egun balioduneko epea egongo da, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan egingo dira, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>

Epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako erreklamazioak lanbide-garapeneko mailak esleitzeko behin betiko ebazpenaren bidez onartuko edo baztertuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a

 **Osakidetza**

Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTOR GENERAL DE RECURSOS HUMANOS

Sin. JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



Resolución 787/2024, de 23 de octubre, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se resuelven las solicitudes de reconocimiento del nivel de desarrollo profesional y se ordena la publicación de la asignación provisional del nivel de desarrollo profesional de los/las profesionales, de las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, correspondiente a la convocatoria ordinaria de desarrollo profesional publicada por Resolución 2425/2023, de 29 de diciembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El artículo 11 de los Decretos 395/005, de 22 de noviembre, 35/2007, de 27 de febrero, y 248/2007, de 26 de diciembre, por los que se regula el desarrollo profesional del personal licenciado sanitario, diplomado sanitario y personal no sanitario y sanitario de formación profesional que prestan servicios en Osakidetza, respectivamente, establece que le corresponde a la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza ordenar la publicación de la asignación provisional del nivel de desarrollo profesional de los/las profesionales, de las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 2425/2023, de 29 de diciembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se regulan los requisitos, solicitudes, procedimiento de evaluación y asignación del nivel de la convocatoria ordinaria de reconocimiento del nivel de desarrollo profesional correspondiente al ejercicio 2022 para profesionales pertenecientes a las organizaciones de servicios dependientes de Osakidetza.

Conforme establece el artículo 8 de los Decretos 395/005, de 22 de noviembre, 35/2007, de 27 de febrero, y 248/2007, de 26 de diciembre, por los que se regula el desarrollo profesional del personal licenciado sanitario, diplomado sanitario y personal no sanitario y sanitario de formación profesional que prestan servicios en Osakidetza, respectivamente, una vez que los Comités Corporativos de Desarrollo Profesional han efectuado el análisis de los resultados de las personas solicitantes que han sido admitidas al proceso por reunir los años de servicios prestados requeridos para optar a nivel superior y a su vez han superado la puntuación mínima en cada uno de los bloques establecida en los citados decretos, y han emitido Informe, corresponde a la Dirección de Recursos Humanos ordenar la publicación de los resultados en la página web de Osakidetza.

El art. 10 de la Resolución 2425/2023, de 29 de diciembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, regula el procedimiento de asignación de niveles, y establece en su apartado a) sobre resolución provisional de asignación de niveles que, el Comité de Evaluación, una vez aprobada la relación provisional de los niveles acreditados, remitirá la misma a la Dirección General de Osakidetza. Tras la emisión de informe por el Comité Corporativo, la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza ordenará, mediante resolución, la publicación de la relación provisional de los niveles acreditados en la página web de Osakidetza.



Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades atribuidas

RESUELVO:

Primero. – Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza de la relación provisional de asignación del nivel de desarrollo profesional acreditado por los/las profesionales, de las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, correspondiente a la convocatoria ordinaria de desarrollo profesional publicada por Resolución 2425/2023, de 29 de diciembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En el Anexo que acompañan a la presente Resolución, se relaciona la asignación provisional de los niveles reconocidos de los siguientes grupos profesionales:

Grupo A1. Licenciado/a sanitaria

Grupo B1. Diplomado/a sanitaria

Grupo A2 - Titulado Superior

Grupo B2 - Titulado Medio

Grupo C1 – Técnico/a Especialista Sanitarios/as

Grupo C2 – Técnico/a Especialista Administrativo/a

Grupo C3 – Técnico/a Especialista Profesionales

Grupo D1 – Técnico/a Auxiliar Sanitarios/as

Grupo D2 – Técnico/a Auxiliar Administrativo/a

Grupo D3 – Técnico/a Auxiliar Profesionales

Grupo E1 – Subalterno/a y Operario/a

Las puntuaciones individuales podrán ser consultadas por las personas interesadas en la aplicación informática de desarrollo profesional de Osakidetza-Servicio vasco de salud, accesible en la dirección <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>

Segundo.- Atendiendo al párrafo tercero del artículo 10.a) de la Resolución 2425/2023, de 29 de diciembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, contra esta Resolución provisional de asignación de niveles de desarrollo profesional de la Directora de Recursos Humanos podrán formularse reclamaciones en el plazo de 10 días hábiles, contados a partir del día siguiente a su publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Estas reclamaciones se presentarán en la aplicación informática de desarrollo profesional de Osakidetza-Servicio vasco de salud, accesible en la dirección <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>

Las reclamaciones formuladas en tiempo y forma serán estimadas o desestimadas por medio de Resolución definitiva de asignación de niveles de desarrollo profesional.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2024.



Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Fdo.: JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD